


B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Moda eta
Ondarea
Cristóbal

Moda eta Ondarea. *Cristóbal*



Moda eta Ondarea

Cristóbal

ERAKUSKETA. OTSAILAK 29 — EKAINAK 21/2020

Moda eta Ondarea, elkarrizketa ezinezkoa ia, iragankorra eta iraunkorra aurrez aurre jartzen duena: indarraldia unetik eratorria duen hori eta, aurrean, iraganetik balioa jasotzen duena. Hala ere, elkarrizketa hori badabil Cristóbal Balenciaga hizpide hartzen dugunean.

2018an Ondarearen Europako Urtearekin bat etorrita *Moda eta Ondarea* serie kuratoriala abian jarri zenetik, Cristóbal Balenciaga Museoak helburu izan du gogoeta egitea Balenciagaren obra moda izatetik ondare izatera igarotzeko prozesuari buruz.

Prozesu metakor modura gauzatu da seriea, aurretiko eta gaur egungo ikerketak bilduz eta barne hartuz, betiere diskurtso kronologiko komun batean oinarriturik baina erakusketa bakoitzerako arretagune desberdin bat proposatuz eta emanaldi bakoitzerako museografia aldatuz eta berrikusiz. Aurreko erakusketetan, Balenciagaren obraren erreferente bisualez jardun gara, eta testuinguruan kokatu ditugu haren lan prozesua, bilakaera eta legatua.

Aurten, Cristóbal Balenciagaren jaiotzaren 125. urteurrenarekin bat, serie kuratorialaren baitako hirugarren erakusketa egingo da. Oraingo honetan, hauxe izango da erronka: argitara ateratzea «errezelaren atzeko» pertsona, markaren atzean dagoen izen propioa, goi mailako jostuntzako maisuaren atzean dagoen senitartekoa, laguna edo nagusia.

Aurreko erakusketen oihartzunekin batera, Cristóbal Balenciagaren zenbait objektu pertsonal ere aurkituko ditugu obra hautatu hauen ibilbide kronologikoan txertaturik. Hain zuzen ere, ibilbidean zehar, mitoa alboratzeko eta Cristóbal bera imajinatzeke gonbita egingo digute jantzi, lanabes, gutun, liburu nahiz apaingarri horiek.

CBM 2000.128ab
Artile urdin ilunez egindako esmokina. Paris, 1939
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/Jon Cazenave



Erakusketa

Moda eta Ondarea, Cristóbal erakusketaren ibilbide kronologikoak bere baitan hartzen du Cristóbal Balenciagaren ibilbide profesionala, horrekin batera, ikuspegi berri bat ere proposatzen du: ikuspegi biografikoa.

Cristóbal Balenciaga publikoaren ikusmiratik kanpo egoten saiatzen zen alderdi profesionalari dagokionez, eta erabateko diskrezioa bilatu zuen bizitza pertsonalean ere. Garai hartako prentsaren arabera, gizon misteriotsua zen, iheskorra. Ez zen hedabideen aurrean agertu zalea; ez zen bere bezeroekin zuzenean aritzen –adiskidetasuna zela medio egiten zituen salbuespen bakanetan izan ezik– eta ez zen oso pertsonaia ohikoa xx. mendearen erdialdeko hamarkadetako Parisko bizitza sozial, artistiko eta intelektual bizian. Urruntasun horrek, ordea, ospea ez galarazteaz gainera, eksklusibotasunaren ikur eta bere garaiko publikoaren ikono bihurtu zuen haren izena.

Oso bestelako jarrerez mintzo dira haren hurbileko pertsonen lekukotasunak. Oso bestelakoa zen haren lankide, adiskide eta senitartekoek ezagututako Cristóbal hura: irmoa baina adeitsua; serioa lanean, baina lasaia eta irribarretsua intimitatean; zorrotza baina eskuzabala; beti izan zituena etxekoan babesa eta laguntza, adiskideen leialtasuna eta jaiera, eta enplegatuen errespetua eta mirespena.

Hala, Cristóbal Balenciagaren obraren nondik norakoak erakusteaz gainera, Cristóbal bera imajinatzeko aukera ematen digu erakusketak, haren objektuen presentziaren bidez. Erakusketaren komisario eta Museoko bildumen zuzendari Igor Uriaren arabera: «Gure asmoa ez da azalpen biografiko bat egitea, baizik eta gogora ekartzea beti itzalean, errezelaren atzean, lantegian gorderik, ideiak hausnartzen, sorkuntza lan isilean jardun zuen gizon hura –eta, agian, gure buruari galdetzea zergatik iritsi diren objektu jakin horiek guregana eta zer kontatzen diguten gizon hari buruz–».

©Juan Gyenes. Espaniako Liburutegi Nazionala





CBM 2000.155-158
Lanerako tresnak (metalezko puntzoia,
zurezko puntzoia, erruleta eta titarea)
© Fundación Cristóbal Balenciaga/Jon Cazenave

Datu batzuk

Erakusketa bost aretotan antolatuko da, eta 700 m²-ko azalera hartuko du, guztira. 80 jantzi pieza bilduko ditu, gehienak lehenago erakutsi gabeak. Museoko bilduman sartu berriak dira, eta honako erakunde eta bilduma hauen gordailutzeak eta legatuak: Parisko Archives Balenciaga, Solano-Belausteguigoitia bilduma, Gorostola-Portorcarrero bilduma, Astoreca bilduma eta Medina-Balenciaga bilduma.

Bestalde, *Moda eta Ondarea. Cristóbal* erakusketaren epilogo gisa, edo haren eranskin gisa, areto berezi bat irekiko da, Museoaren eta Parisko Archives Balenciagaren arteko lankidetzaren berezi bati esker, Balenciaga etxearen egoitzan gorderiko ondarea erakusteko.

Erakusketa diskurtsoa eta hari laguntzeko hautatutako piezak nahiz espazioaren kontzeptualizazioa eta diseinua Museoko bildumen zuzendari Igor Uriaren eta Judith Clark fashion curator ezagunaren arteko elkarlanetik eratorritako planteamendu berritzaile baten emaitza dira. Jarraipena eman diote serie honekin hasitako lankidetzari, baina edizio honetan, gainera, Londresko University of the Arts unibertsitateko Centre for Fashion Curation zentroaren babesaren izango dute.

«*Moda eta Ondarea* serie kuratorialaren hirugarren edizioak alderdi biografikoa erantsiko dio aurreko erakusketetan bildumaren eta instalazioaren, artxiboaren eta museologiaren artean sortutako elkarrizketari. Cristóbal Balenciaga beti egon da presente bere silueta ikonikoen bilakaeran, baina argazki ez hain ezagunen bidez agertuko da, oraingoan, baita haren jabetzakoak izandako objektu sorta baten bidez ere. Batzuk eta besteak, pertsonaia enigmatikoaren talisman edo fetitxe bihurturik ia», azaldu du Judith Clarkek.



Cristóbal Balenciagaren erretratua
Argazkia: Man Ray
© Harper's Bazaar, 1940

Cristóbal Balenciaga gogoratzuz

Moda eta Ondarea. Cristóbal erakusketak, beraz, Cristóbal Balenciaga bera eta hark pertsona gisa utzitako arrastoa izango ditu ardatz, harenak izan eta Museoaren bildumetan jaso diren zenbait objekturen bidez. Jantziez gainera, erakusgai jarriko dira jostunaren zenbait objektu pertsonal, zeinak lagunduko baitigute haren alderdirik intimoena azalera ateratzen. Lanabesak, objektu pertsonalak, gutun pribatuak, edo hari buruz –haren zaletasunez, joerez, egunerokotasunaz...– mintzo zaizkigun jantziak.

Argazkiei dagokienez, oso gutxitan agertzen da jostuna, haren ikuspegitik bere sorkuntzek zutelako garrantzia, eta ez berak. Argazkilari batzuek Balenciagarekin zuten adiskidetasuna zela medio izan zuten hari argazkiak ateratzeko aukera; adibidez, Sarriak, Donostian, eta Luis Corbellák, Madrilen. Beste batzuek, berriz, lurrinen publizitate kanpainetarako atera zizkioten argazkiak, Louise Dahl-Wolfek eta Madame D'Orak, esaterako; eta beste zenbait argazkilari ospetsuk –Man Ray, Inge Morath eta Henri Cartier-Bressonek, adibidez– argazki erreportajeak egin zizkioten garai hartako hainbat aldizkari ezagunetarako: *Harper's Bazaar*, *Vogue*, etab.

Museoaren bildumek Cristóbal Balenciagak sortutako obrak biltzen dituzte, baina baita haren jabetzako hainbat objektu ere, oso lagungarriak Balenciagaren testuinguru biografikoa, kulturala eta lan arlokoa ezagutzeko. Jostunaren hurbileneko kideek –senideek, lankideek, enplegatuek, lagunak– objektu horiek kontserbatu, eta Museoari dohaintzan eman edo laga dizkiote, erabateko eskuzabaltasunez, orain erakusgai jar ditzan.

CBM 2000.93
Klein urdin koloreko puntuzko poloa,
Cristóbal Balenciagarena
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/Jon Cazenave





Zilarrezko kaxa, c.b. inzialekin
Bilduma Agustín Medina Balenciaga
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/Jon Cazenave

Objektu horien bidez interpretatu ahal izango dugu Cristóbal; ekarri ahal izango dugu jostintzako maisua oroimenera. Erakusketa esparruan aurkituko ditugu, besteak beste, Parisko lantegiko aulkia –Hubert de Givenchy hainbat urtez kontserbatua, Museoari dohaintzan eman zion arte–; haren lanabesak –oihalak markatzeko erruleta eta puntzoia–, Ramón Esparza laguntzaile hurbilak dohaintzan emanak; bere bizitzan zehar jasotako dominak, eta zilarrezko kutxa bat, enplegatuek opari eman ziotena 1968an jostintza etxea itxi ondoren. Gaur egunera arte kontserbatutako objektu horien laguntzaz, Cristóbal Balenciagaren nortasunaren silueta marraztu ahal izango dugu.

Haren jantzizaindegiak ere ezin konta ahala pista ematen dizkigu Getariako jostunari buruz. Centre for Fashion Curation zentroaren arduradun Ben Whymanek dioenez: «Cristóbal Balenciagaren arroparen analisi kultural materialak agerian uzten ditu jostunaren gorputzak bere jantziekin eta jantzien kontra egiten zituen mugimenduen bidez finkatutako materialtasuna (higadura, abrasioak eta gainerako markak). Hain zuzen ere, jantzien higadurak aditzera ematen ditu agerikoak ez diren haren bizitzari buruzko zenbait pista: haren keinuenak (eskua, kokotsean, edo haren soina dotore inguratuz), edo lantegian aritzeko zuen modua (gorputza alde batera makurturik, jantziaren lerroak aztertzen)».

Objektu pertsonalen zerrenda

- Parisko Avenue Georges V etorbideko 10. zenbakiko lantokiko aulkia
CBM 2000.228
- Lanerako tresnak
Metalezko puntzoia, zurezko puntzoia, erruleta eta titarea
CBM 2000.155 -158
- Portzelana zuriz egindako hautsontzia,
EISA aretoetakoa
CBM 1998.250
- Aldizkariak koadernatuta
La Moda Elegante (1874)
Vogue (1916-1919)
Les Idées Nouvelles de la Mode / Art. Gout. Beaute (1922-1924)
Femina (1925)
Blanco y Negro (1930)
Bilduma: Agustín Medina Balenciaga
- Metalez eta intxaurrondo-zurez egindako aldizkaritegia
Bilduma: Familia Balenciaga Arrieta
- Artile urdin ilunez egindako esmokina, 1939
Opelka, Paris
CBM 2000.128ab
- Alkandora zuria Bel y Cía. Barcelona
CBM 2000.95
- Zetaz egindako gorbatak
CBM 2012.12-CBM 2012.61-62
- Sonsoles de Icazari eskuz idatzitako eskutitza
Bilduma: Sonsoles Diez de Rivera
CBM 2010.04
- Rachel L. Melloni eskuz idatzitako oharra eta eskutitza
CBM 2014.537a - CBM 2014.535d
- Labbey ehunen hornitzailearen emazteari idatzitako dolumin telegrama, 1968
CBM 2011.145a
- Donostiako Errege Klub Nautikoko agiria, 1954
CBM 2000.272
- Gidabaimena, 1963
CBM 2000.273
- Larruz forratutako maleta, Louis Vuitton etxearen anagramarekin
Bilduma: Agustín Medina Balenciaga
- Kondekorazioa-Légion d'Honneur-eko zaldunaren domina, 1958
Bilduma: Agustín Medina Balenciaga
- Kondekorazioa-Isabel Katolikoaren domina, 1966
Bilduma: Agustín Medina Balenciaga
- Kondekorazioa. Meritu Zibilaren domina, 1968
Bilduma: Agustín Medina Balenciaga
- Balenciagarentzako titulua zuen baliza diplomatikoa, Parisko Espainiako enbaxadoreari zuzendua
Bilduma: Agustín Medina Balenciaga
- Zilarrezko kaxa, c.b. inzialekin.
Parisko kabinako manikien oparia, etxea itxi zenean, 1968
Bilduma: Agustín Medina Balenciaga

CBM 2000.228
Parisko Avenue Georges v etorbideko 10. zenbakiko lantokiko aulkia
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/Jon Cazenave



Artxiboaren balioa



Argazkia ehun laginarekin. 60. hamarkada
© Archives Balenciaga, Paris

Jostuna Getarian hil zen, 1972an, eta, harrezkero, zenbait enpresa talderen eskuetan egon zen Balenciaga etxea, harik eta Kering taldean sartu zen arte (talde horren parte da gaur egun). Gaur egungo modako garrantzi handiko irudiak aritu dira marka horretan sorkuntza zuzendari: Nicolas Ghesquière, Alexander Wang eta, gaur egun, Demna Gvasalia. Cristóbal jaio zenetik 125 urtera, haren moda etxea itxi eta 52 urtera, goi mailako jostuntzara itzuliko dela iragarri du Balenciaga etxeak.

Bitarte honetan, enpresa frantsesak kontserbatu du Balenciagaren Parisko Goi Mailako Jostuntza Etxea izan zeneko artxiboen parte handi bat, barne direla jantziak, toileak, argazkiak, zirriborroak eta filmazioak. Garrantzi handiko artxiboa da, ondarearen eta kulturaren ikuspegitik, eta, Ondarearen Europako Jardunaldietan, erakusketa propio bat egiten du enpresak, ondare hori gizarteratzeko; horrez gainera, lankide gisa parte hartzen du Balenciagari buruz itzal handiko beste erakunde batzuek egiten dizuten erakusketetan, Cristóbal Balenciaga Museoarenetan, esaterako.

Jostunaren jaiotzaren 125. urteurrenarekin bat etorritik, hamabi toile –oihalezko patroiak–, 60ko hamarkadako sorkuntzaren erakusgarriak, eta Tom Kublinek 1960 eta 1967 bitartean desfilei buruz egindako film sorta bat bildu dira areto honetan, erakusketa osoak bereizgarri duen artxiboko estetika nabarmentzeko berariaz eraldatutako espazio batean.

CBM 02.1999
Tafeta distiratsu fuksiaz egindako gaueko soinekoa, bi bolanterekin, 1963
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa / Estudio Outumuro



CBM 2000.204
Zeta beltzeko tafetaz egindako globo-soinekoa, 1952
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/Estudio Outumuro



Cristóbal Balenciagaren sorkuntza ondarea

Erakusketaren diskurtsoak Cristóbal Balenciagaren bilakaera aditzera ematen du, haren ibilbide profesionala osorik hartzen duen hari kronologiko baten bidez, hari horretan txertaturik ageri direla, halaber, Museoaren bilduman bildutako jostunaren objektu pertsonalak.

Hastapenak eta eraginak (1912-1936)

Cristóbal Balenciagak Donostian jarri zuen abian bere enpresa eta sorkuntza abentura, 1917an. Garai hartan, loraldi betean zegoen hiria, Gortea uda garaian Donostian egoten zelako eta euskal itsasaldean turismoa zegoelako.

Hasierako garaietan, Frantziako goi mailako joskintzako sorkuntza lanak bereganatu, aztertu eta berregin zituen Balenciagak; bereziki Vionnet, Lanvin, Louiseboulanger eta Chanelenak. Emakumeak janzten zituzten emakumeenak. Garai hartako joerari jarraituz, beste ikuspegi eta sentiberatasun batzuek erakarri zuten, Ekialdetik zetozenek, esaterako. Arreta berezia eman zien mota desberdinetako mahukak saiatzeari, ehunaren zentzuaren azterketari, josturak minimizatzeari, formak soiltzeari eta ehuna bera apaintzeari.

Balenciagak bere markak Espainian barrena garatzen eta hedatzen jarraitu zuen: Madrilén finkatu zen 1933an, eta Bartzelonan 1935ean.

Azterketa formala (1937-1951)

Parisen aurkeztutako lehen bildumatik beretik utzi zuen Balenciagak kritika zeharo harrituta, bere maisutasun teknikoagatik eta bereizgarri zituen espainiar tankerako proposamenengatik. Edonola ere, II. Mundu Gerra lehertu zen berehala, eta, materialen urritasunak, emakumeek zeregin berriak beren gain hartu izanak eta espiritu abertzaleak bultzatuta, inspirazio militarreko moda nagusitu zen, urte batzuek, gerrari buru-belarri emanik baitzegoen gizartea.

CBM 02.2002

Boli koloreko zetazko satinezko ezkontza-soinekoa, parpailazko lepoarekin, aldakan drapeatua eta dandar biribila, 1945

© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/Estudio Outumuro



Gerra amaitutakoan, Frantziako goi mailako jostintzak sektorea berreraikitzeke erronkari aurre egin behar izan zion; garai hobeak ziren, eta egoerarekin bat zetozen ideia berriak sortu beharko zituen. Testuinguru haietan bizi izan zen eta jardun zen Balenciaga. 1947an, aldi berean aurkeztu zituen une hartan egiten ari zirenen tankerako modeloak -gerri estuak eta gona handiak- eta proposamen berriak, hala nola «upel» eta «globo» lerroak, zeinak ez baitzetozen bat indarrean zen estetikarekin.

Berrikuntza (1952-1959)

Balenciagak aurreko hamarkadan silueta berri bati buruz hasitako ikerketek 1951n eman zuten fruitua, orduan aurkeztu baitzituen emakumearen gorputzaren biribiltasuna nabarmendu ordez hura lausotzen zuten proposamenak, bereziki gerriari dagokionez: hala nola, «midi», «marinel» eta «erdi estua» modeloak.

Modelo haietako batzuek hogeiko hamarkadako siluetak gogorarazten dituzte, zeinetan lausotzen baitzen gerria. Hain zuzen ere, Balenciagak sorbalde lerroa eta soinekoen behea hartu zituen erreferentzia gisa. Haietatik abiatuta sortu zituen berrogeita hamarreko hamarkadako mugarriak, «tunika», «zaku» eta «baby-doll» lerroetan garatuak; modelo haietan, bereizketa iraultzaile bat egin zuen gorputzaren eta soinekoaren artean, eta gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan zen beste elementu bat: airea.

Balenciaga «etorkizuneko modari bidea ireki zion jostuna» izan zen garai hartako moda kazetari zenbaiten arabera, eta, hain zuzen ere, ideal femeninoaren kontzeptua goitik behera berritzera eraman zituen bere bezeroak, eboluzio pixkanakako, isil eta etengabe baten bidez.

Lerroen arazketa eta abstrakzioa (1960-1968)

Hirurogeiko hamarkadan, abstrakzioa nabarmendu zen Balenciagaren siluetetan. Bolumen handiak nagusitu ziren soineko nahiz jantzietan, berrogeita hamarreko hamarkadan sortu zituen mugarrietatik abiatuta, soinekoetan nahiz jantzietan, orduko patroiak -«zakua», «tunika» eta «erdi estua», adibidez- berrikusiz. Hain zuzen ere, mugarriak uztartzearen emaitza dira erreferente estetiko berriak sortze aldera 1960ko hamarkadan aurkeztutako silueta berriak.

Balenciagak bere ibilbide guztian erakutsitako minimalismo kontzeptual eta teknikoa islatzen dute gazar, zagar eta ziberlina oihalen tankerako oihal zurrinak baliatuz sortutako silueta abstraktu eta bolumen geometrikoek.

Urratsez urrats. Aurretikoaren bilakaeraren bidez. Horrela aldatuz joan ziren Balenciagaren bildumak, urtez urte, bat-bateko jauzirik gabe, irmotasunez, aurretiko ideiak pixkanaka muturrera eramanez, emakumearen gorputza eta soinekoa elkarrengandik erabat bereizi arte.

Erakusketaren diskurtsoa 1968an amaitzen da, moda etxea itxi zen urtean, eta orobat egiten dio erreferentzia Balenciaga bizi zela nahiz hura hil ondoren haren obra ondaretzeko gertatutako prozesuari.

Cristóbal Balenciagaren sorkuntza lanen ondarearen bi lagin: «tunika» eta «midi»
© Nordin/Nilson, Archives of the Nordic Museum
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa



CBM 2000.131
Shantung zeta berde argiz egindako gaueko soinekoa, 1961
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa / Estudio Outumuro



Cristóbal Balenciaga Museoa



Cristóbal Balenciaga Museoa, Getarian
© Cristóbal Balenciaga Fundazioa/
Idoia Unzurrunzaga

Cristóbal Balenciaga museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da –3.000 pieza inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker–, eta hedadura formal eta kronologiko handia du –jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako–; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.

Informazioa

ZURIÑE ABASOLO IZARRA
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com


T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalenciagamuseoa.com
www.crislobalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71km
Bilbao — 81km
Donostia/San Sebastián — 25km
Iruña-Pamplona — 97km
Vitoria-Gasteiz — 83km

GPS
43° 18' 6.92" N
2° 12' 18.77" W

